

Roberto Izagirre

Euskarazko sailean lehenengo saria

Ondo kontatuko istorioa da, hizkuntza aldetik oso egokia. Estilo zuzena eta sentiberatasunez beterikoa erabiltzen du mendizaleen artean oso estimatuak diren mendiko bizipenak eta pasadizoak kontatzeko, nahiz gizakien baloreak (adiskidetasuna, solidaritatea, errespetua...) azaltzeko.

Sokakidearen agurra



■ Roberto Izagirre recibe de Mikel Arrizabalaga el primer premio del I Concurso de Cuentos

SOKAKIDE barik geratu naiz. Behin betirako joan zait egitasmo honetarako ezinbestekoa nuen euskarri eta sostengua. Berarekin eraman ditu, gainera, nire, gure animo eta ilusio handienak. Zuritasun, argitasun aseptiko izugarri honen erdian, *marroi* ederrean sartuta nago, eta txarrena da ez diodala buruari, gorputz mehar honi, indarrrik sumatzen zeharkaldi hau bukatzeko. Lehendik ere antzerako sentsazioak izan ditut, ezberdina da oraingoan ordea. Gure arteko lubakia munduko arrakaladarik handiena baino handiago da, gaindiezina. Jo dezadan, baina, istorio honen hastapenetara, bitartean ezinbestekoa dudana kemena nonbaitetik agertzen bada.

Betidanik, burua iristen zaidan akorduraino maite izan ditut mendia eta natura. Hasieran, ume-umetan gurasoekin ekin nion hainbat gailur eta bailaratara eramango ninduen bideari. Aitak sarritan aipatzen zuen bide osoa protestan egin ondoren, zer nolako korrikaldiak egiten nituen gailurretako gurutzea agertu ordurako, hori baitzen txirtxil eta perretxikoren batekin eta lagunei kontatutako gezur-asmakizunekin batera, ume bati mendiak uzten zion zorientasun unerik ederrena.

Ezberdina nintzen, arraroa ere bai seguruenetik, batzuen esanetan. Inguruko beste neskatilak panpinekin jolasten zuten

bitartean, kopin haiei janaritxoak prestatzen zizkieten bitartean, nik auzoan eta inguruan ziren horma guztiak igotzen ematen nuen denbora. Gehienen ametsen erregina Edurne Zuri zen garaian eta printzea zalantzarik gabeko heroia, liluratu eta markatu ere -esango nuke- egin ninduen istorio bat kontatu zidan behin aitak, mila aldiz errepikarazi niona aurrerantzean -urteen poderioz aguretu eta gero ere izugarri gozâten nuen ordurako irakurrita nuen istorio hura bere ezpainetatik entzuten-, non erregina Lady Lister zelako bat zen eta nire auzoko esan guztien kontra, berriz, gaiztoa printzea, Moskowa izena zuen printze bihurri bat. Horrela, nire ume herrialde mirengarriak Vignemale zuen izena eta Aliziaren ordezkari Lady Lister bertako bisitaria. Zenbat amets egin nituen ohe gainean jarrita nuen Gaube posterrari begira...! zenbat aldiz egingo nuen amets izen bereko elur arrastotik Pic Longerraino igotzen nintzela...! Ondo asko asmatu zuten gurasoek barrenean ereinda nuen ernamuin hura jorratu eta zaintzen, eta hamalau urte bete nituen egunean boudriel bat oparituaz gain hain miresten nuen mendia igotzen saiatuko ginela agindu zidaten, ikasturtea ondo bukatuz gero. Esan beharrik ere ez dago, halako akuilakada hartuta, emaitza ezin hobekak izan nituela OHoko azken urte hartan.

Bizitzan zehar ahaztezinak diren gau batzuk metatu izan ditut oroimenean, baina bakarria aukeratzekotan Paradis kobazuloan, nire ametsetako gailurrean egin genuen bibak hura izango litzateke bereziena. Aukeran laga zidaten Baysellance aterpean edo han lo egitea eta inongo zalantzarik gabe, goiko ezerosotasuna aukeratu nuen. Hau idazten dudana bitartean ere, han goian lumazko lo-zakuan barrena hain samurki entzun nituen Russelen bizitzaren pasarteak gogoratu gero, oraindik orain ere lanbrotu egiten zaizkit begiak. Ez ziren aita eta ama eskolan traba handirik egindakoak, ez, baina zein jakintsuak ziren guraso lanetan, zenbat sentimendu eta mimo jarri zuten nire heziketan. Ez zitzaizkidan entzun barik joan, bizitzan askotan aitortu nien, baina beste behin ere, paper puska honetan eskerrik beroenak bidaliko dizkiet -ez dutela irakurriko jakinda-, bizitzaren oinarria hain sendo eraikitzen laguntzeagatik. Hura izan zen hasierako hiru milakoa, eta aurretik Oiz -lehenengo milakoa- eta Arlas -bi milako estreinaldia- bezalaxe, nire paradisu partikularrean betirako geratu zaizkit. Gerora ehundaka gailur, milaka egun mendian, milioika pauso eman ondoren ere hiru haiek beti izan dute toki berezia nire bihotzean. Urte asko pasa eta gero, hiru argazki haiekin koadrotxo bat egin eta oheburuan paratu nuen, nire ametsen zatirik ederrenetarikoa baitziren.

Horrela, apurka-apurka koskortzen joan nintzen, sena eta soina eraldatzen joan zitzaizkidan eta otu ordurako ume garaiki atzean laga nituen, ez osteria hain errotuta nuen zaletasuna.

Sarritan beste hirukote batekin konpartitzen genituen irteerak, gurasoak eta ni baino urtebete gazteago zen mutiko batekin, Mikelekin. Betidanik anaiatzat hartu izan nuen Mikel, guztia konpartitzen genuen gure artean, sarritan izaten baikenen aterpeko ume bakarrek; zenbat borroka eta jolas ez genuen elkarrekin egingo...; horregatik, akaso, hain txokantea egin zitzaidan behin Maupasko aterpetxean gertatutakoa. Bailara hartako gailur batzuetara igotzeko asmotan abentatu ginen Luchoneko bordetatik, eta izerdi batzuk atera ondoren aterpetxea harrapatu

genuen, non ohiko solasaldi eta afari eder baten ondoren, frontalen argitan lotara joan ginen. Lo lekua, betiko moduan, koltoiz betetako gela handi bat zen eta arropak kentzeari ekin nioanean Mikelen begiak nire gorputzean iltzaturik igarri nituen. Disimulatzen ere ahalegindu zen, begiak ixten, otua nintzela konturatu zenean, baina ordurako gure arteko harreman hura aldatze bidean zen. Hasieran txunditu baninduen ere, ez dut esango egoera berriak nahigabea sortu zidanik barrenean, ez horixe, gustura, eroso sentitu nintzen neure buruarekin eta, gainera, aurrerantzean egin genituen irteeretan jolastu ere egin nuen apur bat nire betiko lagunak ezkutatu nahi eta ezinean borrokan zerabilen sentimenduen harekin. Zenbat barre egin dugun gerora egun haiek gogora ekarrita!! Gertatu beharrekoa gertatu zen, eta begiraden jokoetatik, bultzakada eta heldu inozoetatik beste besarkada mota batera iritsi ginen oharkabean. Kursi samarra geratzen bada ere, oraindik gogoan daukat zer nolako gustua utzi zidan lehenengo muxu hark, baita zein ondo sentitu nintzen bere besoen arteko epeltasunean ere! San Adrianen ginen, elurrez inguratuta, hurrengo egunean Kanal-Handi igotzeko asmotan. Ez dut akorduan zein aitzakia erabili genuen afal ostean elkarrekin kanpora irteteko, baina aspalditik aurreikusten nuen hura gau hartan, ilargi bako gau hartan, gertatu zen. Hurrengo egunean -amak gurekin ez zirela aprobetxatuz- estrainekez burutu genuen elkarrekin sokaldia, gazteok batetik eta aita biak bestetik landu baikeñuen kanaleko irteera. Itzela, ahaztezina izan zen Kanal-Handi guretzat; aurrerantzean ere gaingidu dugun bakoitzean zerbait berezia sumatu dut nire baitan.

Hasiera batean ezkututzen ahalegindu ginen gure artekoa, baina irteera bat, beste bat... tarte askotxo ematen genituen elkarrekin denen begien aitzinean, eta dirudienez, ez ginen guk uste bezain komediante onak. Lekuko gisa, afalduko baten gura-ongandik jasan genuen adar jotzea. Gerora, egia esan, gutzia errazagoa izan zen eta goxo-goxo jardun genuen mendian zein bizitzan, ikasketek bakoitza herri batera eramán gintuzten arte. Hala eta guzti ere, astea bakoitzak berean eman ondoren, ez zen astebururik igaroko mendikararen bat burutu gabe, zailak bazuk -zelan disfrutatzen genuen pioleta, eski edo sokarekin- ez gutxiago gure ingurunean, eguzkipe epalean zeharkalditxoren bat burutzen edo motxilan joaten zen kolesterol mordo hura jaten (gure lagun batek txerria txikituta deitzen zion) edo zelaien batean etzan eta berba eginaz, astean zehar pilatutakoak hustuz... Hango barrea, hango laztana eta ukitu beharra! Beste mendizaleren bat agertutakoan ateratzen zitzaizkigun koloreak tarteka, eta estuasunen bat edo beste ere pasa genituen jarrera "konprometidua" samarrean harrapatu gintuztelako, baina sasoiari sasoiak kontuak! Zoriontsu ginen elkarrekin.

Jende berria, hiriaren erakargarritasuna, ohitura ezberdinak... baina hala ere gure arteko uztarriak -lotzen gintuen ardatzak- bere horretan iraun zuen ikasketak bukatu eta lan munduak irentsi gintuen arte. Garai batean nahiko mugatuta genuen lagunarteko ingurunea zabaltzeko ere balio izan zigun ikasketa garaiak, mendiaren kalterako nire kasuan, goi-mendizaletasunean sakondu eta ogibide bihurtu arte Mikelen. Berori izan zen gure arteko sasoiarik kalapitatsuena. Ezin nuen jasan hainbeste aste etxetik, herritik kanpo eman beharra mendiko gidari lanetan edozeinekin, are gehiago informatikari bezala -berak ikasitakoa azken finean-lanik falta ez zuenean gure artean. Mila aldiz aurpegitratzen nion niri edo bere buruari ihes egitea ez ote zen joan behar hura. Sekula aitortu ez banion ere, distantziak ematen duen gardentasunetik, garbi ikusi izan dut gerora inbidia eta jelsia zirela nire ahotsa hartzen zutenak halakoetan. Dena dela, aldapa asko lautzen ditu maitasunak eta gure artekoa ere, erdibideak lantzen-lantzen, desegiten joan zen. Orduan erabaki genuen behin betirako elkartzea, gurea soilik izango zen habia eraikitzea, eta baldintza bana jarri genion elkarri bat egiteko: ogibidea aldatzea nik, mendi-bidea berriro elkarrekin jorratzea berak. Zein zoriontsu izan nintzen eta izan naizen gero ere!! Amets bat betetzeko baimena eskatu zidan arte. Nola ukatu! K2ra joan zen -zelako beldurrak pasa nituen, zenbat gau gaubelean...!- Mendi gailurrik ez zuten zapaldu, baina nire sentimenduekiko goia jo zuen eskutitz harekin, ahale-

gin berezi barik hitzez hitz, arrapaladan, elur urtua udaberrian menditik bailarara datorren bezalaxe datorkidana burura eta ezpainenara, une beltz hau argitu nahian:

Ene Maite kuttuna!!
Gogoratzen al duzu?

*ILARGIA URETAN MURGILDUTA
ITSAS ARRAIN TXIKIEN ARTERA
URAREN HOZKIRRIAREN ZIRRARA
HONDAR EPELAREN ALBOAN*

Orain honetara, elur tarte madarikatu honetara, doinu eta bertso haien oihartzuna datorkit. Ez dakit guk biok bat eginda Ernioko magalean dantzatu genuen berbera den, edota nire bihotzaren taupadak, zeure oroitzenarekin, musika bihurtu ote diren. Ez edozein musika ordea, baizik eta huraxe -bere epeltasun eta goxotasun handiarekin- orain hain premiako dudan horixe.

Azkenean, abesti honekin arindu nuen zama, bat batean bota nizean: "Maitia, udazken honetan eta gure bizitzak betiko elkartu aurretik, K2ra joatea gustatuko litzaidake." Momentu hartan, nahiz eta konturatu zure gorputza hotzikara batek zeharkatzen zuela, zure ezpainek orain arte ikusi dudan irrifartxorik aingerutarrena eskaini zidaten, esanez: "Aurrera ba, joan eta bete zure ametsa".

Hain urruti etorri behar amets bakarra zeu zurela konturatze-ko!! Egunen batean, gailur hau zapaldu ondoren, nahiz eta oroi- men zoragarri ugari gelditu, amets hori desagertu egingo da nire barnetik. Baina zure irudimena, batzuetan alai, besteetan goibel, hori..., hori ez zait behin ere desagertuko.

*HAIZEAK ZIMURTU DU ITXASOA
KRESALAK LEHORTU MALKOAK
MAITASUNAREN ZAIN HEMEN NAUKAZU
IZAR GOIZTIARREI BEGIRA*

Doinu hau bururatzen zaidan bakoitzean, nire erraiek bero sarkorra nabari dute, Jaruarena baino epeltasun hobea; nire soina inguratzen duten lumek baino ongitasun ederragoa sortarazten dit zure irudimenak. Eta hemen naukazu, puska hilkor hau soka batekin Pellori eta izotzari lotuta eta beste zatia, ikus- ten ez den zatia, zeuri lotuta. Hari korapilatu bi hauei esker lortuko dut nire ametsik liluragarriena betetzea, "zu" eta "ni" betiko "GEU" izatea!!

Paraje honetan, sarritan, soka finkoak jartzea izaten da zailena, behin jarri gero, berriz, ziur asko sentitzen zara. Bai, bada- kit ez dela erraza izango, baina lortuko dugu eta horren sariak merezi izango ditu bideko muga guztiak gaingitzen pasa behar- ko ditugun ezbeharrak. Hemen, goizaldeetan, izotza diaman- te bihurtu eta gorá egitea zail egiten denean ere, piolet eta krans- poiei esker aurrera egiten dugun moduan, horrela helduko gara biok, astiro-astiro, bizitzaren gailurreraino.

*ILUNTZEAN URAREN ERTZEAN
ERRAINU BATEN ARGIA
ENE MAITE BOK JOLASEAN
OLATU ZIPRISTIN ARTEAN*

Gure kantuaren doinua bukatu ondoren, ilunaldia gaudimen- du bihurtu denean, garbi sumatu dut nondik datorren ferekatzen nauen haize hotz hau. Euskal Herritik jakina. Han, mendi maga- len batean zure gorputz xarmagarria leunki laztandu, eta bere lurrina -hain ondo ezagutzen dudana, eta orain, hain hurbil eta batera hain urruti usaintzen dudana- xurgatu ondoren hemen zabaldu du mezu honekin batera: "Zatoz, zatoz, amets eder hori bete ondoren; esnatzean, zeure ondoan jarraitzen dudala ikusita- koan, ametsik ederrena eta goxoena bizi izango dugu, ez amaitze- ko inoizzzz...!!!"

Eskerrik asko!! Haizete honekin bidaltzen dizut nire ezpain urrutuek eman dezaketen laztanik goxoena, iritsiko zaizulakoan

PAAAA.....

Zenbat aldiz irakurri izan dudan gerora! zenbat aldiz ekarri didan behar nuen argi izpia ilunaldietan! Gure ohe aldameneko mesanotxean, bere tokian, joandako berrogei urte hauetan izan duen toki berezi hartan jarraituko du, zaharkituta, horituta, tolesduretatik apurtutako zure epistola hark, eta zin egiten dizut



-nahiz eta zuk tamalez hartu ezin- ez dudala sekula gehiago zabalduko.

Hau da hau, nire buruarekin hasi eta nahigabeen berbetan dihardut zurekin, hain ginen biok bat! hain zen fina gure arteko muga!

Onik bueltatu zineten, eta hitzeman zor, berriro ere antzina-ko harremana berreskuratu genuen. Zenbat haran, zenbat gailur eta asmo, zenbat negoziazio, gehiago eskatzen zeu, mantso-itu nahian neu. Zenbat barre, anpulu apurren batzuk ere bai tartean, hainbeste gauza sartzen dira bitzta oso batean! Ez genuen ondokorik izan, zer egingo diogu bada! Mendiak irakatsitakoa da baita ez dela soilik gailurrean disfrutatu behar, bidean gozatzea ezinbestekoa dela eta, behintzat, saiakeretan -umea ekartze horren ahaleginetan- ederto asko pasatzen genuen. Urteen joanak arindu zigun garaian drama bezala bizi izan genuen hura eta horrela bata bestearekiko eskusibitatea traba barik landu izan dugu, ez daukat damurik.

Euskal Herriko mendiak, Pirinioak, Alpeak... dira amodiozko istorio luze honen lekuko, eta orain, tanatorioko gela honetatik irten, jendeari aurre egin eta zure hilotz hau atzean lagata, bitzta den zeharkaldirik zailena burutzeko indarra eskatu beharko diet Txindokiri, Anayeti, Zerbinori..., beraien barrenetan hain oparo xahutu ditugun izerdien izenetan. Ezin dut bestela. Gela honetan zurekin hitz egiten Mikel -nahiz eta garbi eduki ez didazula entzungo- gure arteko soka, hainbestetan lotu gintuen zilbor hestea, hor dagoela sentitzen dut, baina jakin badakit hemengo atea ixten dudanean berak eten beharko duela gure lotura ere. Ez nizun sekula ezkutatu sendagileak esandakoa, eta hain hurbil ikusten genuen heriotza ere ez zen gai izan zure umorea ezkutatzeko; adarra jotzeko ere erabili zenuen azken aurreko egunean, Josefaten zelaitik

igoeraren batzuk ere aurkituko zenituela ni joan ordurako, errazak, trepadarrik bakoak esan zenidan. Erakustaldi ederra azken unera arte!

Eskerrak ematea besterik ez zaizt geratzen Mikel. Hainbeste gauza ditut eskertzeko! Gouterren izan genuen elkarrizketa hura datorkit burura. Gogoratzen duzu? *Mila esker!* bota zenidan bat batean, deblauki, *ez dakit zergatik*, jarraitu zenuen, *hirurogei urteetara... Mont Blankera... egun naizen honetara ekarri nauen bidea konpartitzeagatik akaso edo makalaldietan nire euskarria izateagatik edo irrifar garbi horregatik edo... ez dakit zergatik, baina eskerrik asko.* Orduan orain bezalaxe gainezka egin zidaten begiek eta eztarriko korapiloak hor barruan utzi zidan erantzun beharrekoa; baina orain, azken agur honetan esan beharra daukat: erraza, oso erraza izan da Mikel!!

Ez zinen plaka, gurutze eta horrelako abalorioen lagun, mendia lehendik ere nahiko zikinduta dagoela esaten zenuen maiz, baina gauza naizen artean Infernupean, Tebarrayko lepoan, hain gustuko zenuen harri babes hartan, ez da sekula faltako edelweis bat. Gure azken bibakaren lekuko izan zen harripe hura bihurtuko dut zure omenezko aldea, eta bertako bakardadean, behin eta berriz dastatuko dut zure aldamenean gozatu dudan bitzta zoragarria.

Kanporantz noa maittia, jende artera, uzten didazun bakardade hau hor kanpoan dagoen gure jende artean itotzera, aurrez jakinda antzua izango dela ahalegina, lotzen gaituen soka etenezina izango dela luzaroan, aldapa bakoitzak, zelai, elur maluta eta tontor bakoitzak zure oroimena piztuko didala nahigabeen barrenean. ¡¡QUE LA TIERRA TE SEA LEVE!!

ESKERRIK ASKO MENDIA, NIRE SOKAKIDEA HAINBESTE MAITATZEN LAGUNTZEAGATIK!! □